

laburrean

■ IEHIE elkarteak elgarretaratzea egin zuen Baionako geltokian igandean

IEHIE Ipar Euskal Herriko Ikasleen Elkarteak lan egiten du berezko unibertsitate baten alde Euskal Herrian. Galdeketa bat bidali diete Ipar Euskal Herriko eta Biarnoko hamar bat hautetsiri, jakiteko noizko izanen zen 8.000 ikasleendako unibertsitate bat Euskal Herrian. Sei puntutan, elkarteak aldarrikatzen ditu bere eskakizunak, azpimarratuz lanpostuen sorrera ekarriko lukeela Euskal Herria, eta hautu askoz zabalagoa eskainiko zaiela ikasleei. Euskaraz ikasteko arazoa ere azaltzen du elkarteak, baita ikasleen, irakasleen, sindikatuen, lantegien edo hautetsi ugarien sustengua ere. Ikasleen elkarteak galdera hauek biltzen dituzten mila trakta banatu dizkie Baionako geltokian tren hartzen zuten Bordeleko, Parisko, Paueko eta Tolosako ikasleei igande arratsaldean. Banderola baten bidez, berezko unibertsitatearen beharra aldarrikatu zuen. Elkarteak adierazi zuenez, «gure helburu hau oraindik bete ez denez, aurten berriz ere unibertsitatearen aldeko kanpainari heltzen diogu». Bere aburuz, funtsezkoa da ikasleek ere beren iritzia zabal dezaten. Abenduaren erditsuan, hautetsiengandik jasotako erantzunak aurkeztuko ditu elkarteak. Anartean, biltzar nagusia eta lokal berriaren estreinaldia egingen du datorren larunbatean Baionan. X

■ Herri akusazio gisa ariko da Andrea elkarteak Buñuelgo emakumeen epaiketan

ANDREA, tratu txarrak jasan dituzten emakumeen Nafarroako elkarteak, herri akusazio gisa ariko da Hego Amerikako zortzi bat emakume prostituitzera behartu omen zituen Buñuelgo burdel baten jabearen kontrako epaiketan. Andreak komunikatu baten bidez adierazi zuenez, emakume horiei kanporaketa espedientea ireki zitzaizkien euren egoera legala eta eskubideak zein diren jakinarazi gabe. Horregatik, gutienez epaiketa egiten den bitartean kanporaketa espedientea bertan behera uztea nahi dute Andreakoek. Hala eskatu zitoten Tuterako gizarte zerbitzuei, haiek, bere aldetik, Espainiako Gobernuako ordezkari Francisco Javier Ansuategiri eska ziezaioten. Baina oraingoz ez dute erantzunik jaso. Udalak tratu txarren premia kasu uztaroko pisu bat du, eta bertan emakume hauek sartzea ere eskatu zuen Andreak. Baina udalekoen erranetan, emakume horien kasua ez da premiazkoa, eta, tuterarrak ez direnez, udalak ezin du deus egin. X

■ Etorkin afrikarren heriotza eragiten duen politika salatzen du kontzentrazioetan SOS Arrazakeriak

GIPUZKOAKO SOS Arrazakeriak joan den asteazkenean Gibraltargo itsasartea gurutzatzen ari zirela txalupa hondoratu eta bertan desagertu ziren 27 lagunak ekarri zituen atzo Donostia, Errenteria eta Lasarten egindako kontzentrazioetara. Beste 27 etorkin hil ziren. 1998: 116 hildako zioen pankartaren atzean jarri ziren Donostian bildutakoak, Gipuzkoako Diputazioaren atarian. Ordu erdi egin zuten bertan, etorkinek bizi duten egoera salatzen. Agustín Unzurrunzaga SOS Arrazakeriak ordezkariak azaldu zuen etorkinen heriotzak «Espainiako Gobernuak indarrean jarritako politika eta atzerritartasun legearen ondorio zuzena» direla. X

■ Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Liga berriz sortzearen alde agertu da Garmendia

MARI KARMEN GARMENDIA Eusko Jaurlaritzako jarduneko kultura sailburuordeak Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligaren (LIAB) berreskurapenaren alde egin zuen atzo erakunde horri buruz Manuel de Intxaustik idatzi duen liburuaren aurkezpenean. Jaurlaritza berriaren laguntza LIAB berriak «aurki argia ikusiko duen esperantza» agertu zuen Garmendiak, Euskal Herriak bizi dituen «une berezi» hauetan garrantzitsua izan baitaiteke elkartearen lana. Jose Maria Muñoa proiektuaren beste bultzatzaileetako batek gogoratu zuen LIAB diktadura frankistaren kontra sortu zela, baina gaur egun ez duela inoren kontra egiteko asmorik. X



Athletic taldeko jokalariek «Bai Euskarari» kanpainaren alde

Herenegun Athletic taldeko jokalariek bat egin zuten «XXI mendearen akordioa: Bai Euskarari» kanpainarekin. Futbol zelaira atera ziren kanpaina horren ikur den eguzkiarekin. Horrela, bat egin duten talde eta elkarteen zerrendan beste izen bat du jada «Bai Euskarari» kanpainak. Hainbat ekitaldi izango dira herrietan datorren abenduan 26ra bitartean. Egun horretan bertan, jai erraldoia izango da San Mames, Anoeta, Sadar, Aguilera, eta Mendizorrotza zelaietan. Euskal Herriko gizarteko hainbat arlo jai horietan izatea espero du kanpainaren antolatzaileak, Euskal Gizarte Erakundearen Kontseiluak.

Zaharren etxea bihurtuko da Zizurkilgo Fraisoro etxaldea

Matia Fundazioak erosi dio eraikina Gipuzkoako Diputazioari

Europa Press / Donostia

LUIS BANDRES Gipuzkoako Gizartekintza diputatuak eta Miguel Angel Segura Matia Fundazioako lehendakariak atzo sinatu zituzten Zizurkilgo Fraisoro etxea jabez aldatzeko idatziak. Matia fundazioak, 193 milioi pezeta ordainduta (7,4 milioi libera), garai batean umezurtegi izandako etxea eskuratuko du, eta bertan pertsona adinduentzako zentroa zabalduko.

Fraisoro etxea 1902 urtean zabaldu zen. Orduetik aurrera Gipuzkoako umezurtegi aterpe ezaguna izan zen, harik eta 1994 urtean hutsik geratu zen arte. Han bizi ziren neska-mutikoak

Matia Fundazioak Zizurkilgo (Gipuzkoa) Fraisoro etxaldea erosi dio Foru Aldundiari. Hala, garai batean Gipuzkoako umezurtegi izan zuten etxea laguntza beharrean diren adineko pertsonentzako egoitza bihurtuko da.

Donostia inguruko zentro berrietara eraman zituzten, erakundearen ardurapean dauden haurrak eskaintzen zaien tratu sistema berrien babesean izan daitezten.

Luis Bandres diputatuaren arabera, azken hamarkadetan demografiak jasan duen aldaketaren ispilu izan da Fraisororen bilakaera, gero eta ume gutxiago baitago, eta, aldiz, adinduen taldea handitzen ari baita.

Azken 20 urteotan Gipuzkoako

demografiak izan duen garapena ikusita, aurreikus liteke Europako biztanleria zaharrena izango duen herrialdeen artean egongo dela; gutxi gorabehera, ehun herritarren artetik hamazazpi 65 urtetik gora izango dute.

Hori dela eta, adinduen zaintzan aritzen diren zentroek gero eta leku gehiago beharko dute. Hain zuzen ere, hori aurreikusita erosi du Matia Fundazioak Fraisoro etxea. X

ESKELAK

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira

(943) 300 222

RAMON GOGOAN ZAITUGU

Gaur 19:30etan Astrabuduako San Lorenzo Eleizan ikusiko gara.

José Ramón Varela Dacoba

KAIA

1998ko abenduak 1

Gobela Ikastolako guraso, ikasle eta langileak beti gogoan izango zaitugu.

Maria Luisa Bilbao Mendizabal

1998ko abenduak 1